

EMAKUMEA EUSKAL HERRIKO GERRA ZIBILEAN ETA LEHEN FRANKISMOAN

Egilea: Maddi Sarasua Egurrola.

Tutorea: Jose Rodríguez Fernández.

Historiako Gradua

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saila

2021-2022 ikasturtea

Laburpena:

Ikerketa lan honen helburua historiako garai zehatz bat genero ikuspuntu batetik ulertzea da, nolabait arkeologia feminista bat eginez. Honetarako, esan bezala garai kronologiko zehatz batean mugatuko gara, Gerra Zibilean eta lehen Frankismoan, zuzenki. Honi dagokionez, badakigu bibliografikoki oso gai jorratua dela, azken urteetan ere arkeologiaren esparruan sekulako indarra hartuz. Era berean, bistan da arazo bat dagoela, gizarteko sektore bat itzalpean mantentzea, emakumea hain zuzen ere, eta generoaren arkeologia bat eginez hau argitara ematea izango da lan honen ezaugarri garrantzitsuena. Honetarako, lurralde jakin batean zentratuko gara, Euskal lurraldeetan hain zuzen ere, bereziki Bizkaian, eta jarraiki, Gipuzkoan. Bistan da hau aukeratzearen arrazoi nagusienetako bat gertutasuna dela, baina aldi berean, batez ere Bizkaia denbora gehiagoz zonalde errepublikarrean mantentzeak elkarte politiko eta kartzela gehiago izatea ahalbidetu du.

Lehengo hariari jarraituz, lanaren beste helburu garrantzitsu bat ere gaur egungo memoria ikertzea izango da, plazaratzen diren elkarte, gune... ezberdin oro nola mantendu eta gogoratzen diren ikuskatuz. Oro har, gune eta elkarte hauek politikan eta errepresioan zentratuko dira lan osoan zehar, izan ere, badakigu emakumeek elkarte politiko propioak izango zituztela, eta hauen eta beste hainbat ezaugarri ezberdinen harira sekulako errepresioa jasango zutela. Horrenbestez, gizarteko hiru talde eta lau kartzela azalduz indartzen da lanaren mamia. Alde batetik, errepublikarrak, faxistak eta Euskal nazionalistak aurkezten dira, beraien egunerokotasun, ideologia eta politikako ezaugarriak ezberdinduz, izan ere, honek errepresioan eragina izango du. Beste aldetik, aurkezten diren lau kartzelak ikusiz, hala nola, Orue-ko txaleta, Durangoko kartzela, Zornotzako kartzela eta Saturraraneko kartzela, garbiago eta gertutasun batekin frogatu ahal izan dut emandako errepresioaren inguruko informazioa, adibide espezifikokoak baitira. Hitz gutxitan esateko, emakumea guztiz zapalduta egon da urteetan zehar eta noski, gaur egun ere, memoria historikoan sekulako hutsunea nabarmentzen da. Jarraian plazaratutako lanarekin hau ahal den neurrian aldatzen saiatzea eta nola ez, salatzea izango dira abiapuntuak, ulertaraziz arkeologia feminista bat beharrezkoa dela historia bere osotasunean ulertzeko, eta zapalduen beharrezko atentzioa emateko.

AURKIBIDEA

1. Sarrera: ikerketaren oinarriak eta erabilitako metodologia.....	3 or.
2. Esparru ezberdinak ikertuz.....	5 or.
2.1. Egunerokotasuna, ideologia eta politika.....	5 or.
2.1.1. Errepublikarrak.....	6 or.
2.1.2. Faxistak.....	8 or.
2.1.3. Euskal nazionalistak.....	10 or.
2.2. Errepresioa: kartzelak.....	11 or.
2.2.1. Orue-ko txaleta.....	14 or.
2.2.2. Durangoko kartzela.....	17 or.
2.2.3. Zornotzako kartzela.....	20 or.
2.2.4. Saturraraneko kartzela.....	23 or.
3. Ikerketaren ondorioak eta memoria gazteen artean.....	26 or.
4. Erreferentzia bibliografikoak.....	28 or.
5. Web errekurtsoak.....	29 or.
6. Eranskinak.....	30 or.

1. SARRERA: IKERKETAREN OINARRIAK ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

Hurrengo orrialdeetan zehar plazaratutakoa sarri itzalpean mantentzen den gai bat da, eta hau bertatik ateratzea izango da ikerketaren helburu nagusia. Ezer baino lehen, Gerra Zibila eta jarraian gertatu zen lehen Frankismoan kokatu beharko gara, historikoki begiratuta garai ez oso urrunak izango direnak.

Ikuspegi arkeologiko batetik begiraturaz, garbi dago Gerra Zibila bibliografikoki oso gai jorratua dela Espainian, eta batez ere Euskal Herrian, non sakontasun gehiagoz ikertu den. Halaber, garai honen bueltan, ikertuena II. Errepublikaren aurretiko garaia izango da, zeinaren inguruan sekulako erreferentziazko ikerketak egin diren (Fusi, De la Granja, De Pablo, Miralles, etab.). Hauez gain, espezifikoki Gerra Zibilean zentratuz, ezin ditugu Xurxo Ayán Vila eta Alfredo González Ruibal aipatu gabe utzi, izan ere, garai honetako arkeologian sekulako garrantzia izan dute gure lurraldeetan. Hauek, Carlos Marín Suárez eta Gonzalo Compañy-rekin batera, “El blog «Arqueología de la Guerra Civil» Un proyecto entre la ética y la estética” plazaratu zuten 2013. urtean, hemen aipatuz aro garaikideko arkeologia berria denez, ikerketa hauetan elkarre ezberdinek protagonismo asko izan dutela, arkeologoak soilik exhumazioekin lotuz. Zorionez, gizartea ulertzen joan da azken urteetan arkeologoaren papera Gerra Zibilean eta Frankismoan hemendik haratago doala, nolabait disziplina hau indartuz (Marín, C., Ayán, X., et al., 2013: 424).

Era berean, V. López de Maturana eta C. Rubioren esanetan, garai honek orain arte jasan duena baino atentzio historiografiko gehiago behar du, eta diote 1987. urtetik bilera edota ekitaldi zientifiko gutxi egin direla ikerketen aurrerapenak plazaratzeko. Oro har, ikuspegi politiko eta sozial batetik ikertutako errepresioa eta exilioa ere gehien jorratu diren gaien artean sartzen dira, baina azken boladan bide gehiago ari dira zabaltzen, emakumeek gerran izandako papera adibidez, generoaren ikuspegi bat sartuz (López de Maturana, V., eta Rubio, C., 2018: 7-8).

Aurrez ikusi dugunaren errepikatuz, Gerra Zibileko arkeologia oso gai landua da, baina genero ikuspegiaren sarrera berria da, eta sekulako hutsunea sumatzen da arlo honetan, emakumearen papera ez da kontutan eduki, eta hutsune hauek betetzen saiatuko naiz

jarraian, historia hobeto osatzen saiatzeko. Sandra Montón arkeologo feministak “Sobre sexo, género y sexualidad en arqueología” artikuluan dioen bezala, generoaren arkeologia ez da soilik iraganeko erlazioak ikertzeko egiten, izan ere, patriarkatuak sistema dominatzaile bezala jarraitzen duen bitartean, generoaren arkeologia justizia soziala egiteko erabiliko da, baztertuta utzi diren emakumeen historiak azaleratzen (Montón, S., 2018: 31).

Esan bezala, lanaren helburua Gerra Zibila eta Frankismoko lehen urteak genero ikuspegi batetik ikertzean datza, nire ustez hau ezinbestekoa den aldetik, batik bat, historia bere osotasunean ulertzeko.

Hau argi utzi ondoren, ikerketa burutzeko erabili dudana antolakuntza eta metodologiaren inguruan jardutea beharrezkoa iruditzen zait. Antolakuntzari dagokionez, lanak, sarreraz gain, atal mamitsu bat du, bi azpiataletan banatzen dena: alde batetik, egunerokotasuna, ideologia eta politika azaltzen dituen atala eta bestetik errepresioa, lehenik honen inguruko datu orokorrak emanez eta jarraiki lau adibide espezifikotan sakonduz, guztiak emakumeen kartzelak izango direnak. Amaitzeko, ondorio orokor batzuk plazaratu ditut, jende gazteak gai honen inguruan duen memorian zentratuz, interesgarria bait da egin den memoria historikoa nolakoa den ikusteko eta gazteen artean dagoen kontzientzia eta ezagupenari erreparatzeko.

Lehenik eta behin, egunerokotasuna, ideologia eta politikaren azpiatalean zentratuz, esan beharra dago hau beste hiru azpiataletan banatu dudala, bakoitzean gizarteko talde espezifikoko batean zentratuz: errepublikarrak, faxistak eta Euskal nazionalistak. Honen helburua, hiruren arteko ezberdintasunak ikustea izango da, honetarako, batik bat artikuluko zientifikoak erabiliz. Zer esanik ez, Biblioteca Nacional de España eta Centro Documental de Memoria Históricaren erabilpenak oso garrantzitsuak izan dira, hauetan garaiko aldizkariak aurkitu ditudalarik, lehen mailako iturriak izango direnak, informazioaz gain irudi esanguratsuak eskeiniz.

Jarraiki, errepresioa eta kartzelen azpiatalean, Ángeles Egido Leónen “Mujeres y rojas: La condición femenina como fundamento del sistema represor” artikulua oso erabilgarria egin zait datu orokorrak ateratzeko, hauek bide ematen dielarik ondoren plazaratutako lau adibide espezifikoei: Orue-ko txaleta, Durangoko kartzela, Zornotzako

kartzela eta Saturraraneko kartzela. Lau hauek hautatzearen arrazoietakoa bat Euskal lurraldeetako kartzela motak ezberdindu eta ematen ziren loturak ikertzea da, baina batik bat, helburua bakoitzaren ezaugarri deigarrienak ikustea izan da, benetan interesgarriak izan direnak. Hauetarako, artikulu zientifikoak erabili ditut, autore espezifikoez gain elkarte eta fundazioez ere baliatuz, batik bat Gerediaga elkarte eta Juan de los Toyos fundazioa, Durangoko kartzela ulertzeko lagungarriak egin zaizkidanak. Honi atxiki, kartzela bakoitzaren azalpenaren bukaeran 1956-1957 urteetako aire argazki bat eta gaur egungo argazki bat jarri ditut, Geoeuskadi bisorea baliatuz lortutakoak. Honen helburua, guneak urteetan zehar izandako aldaketa bisuala lortzea izan da, kontserbazio mailak ere memorian eragina izan dezakeelarik. Beraz, berebiziko garrantzia eman diot azpiatal denetan agertzen diren eraikinetan egin den memoriari, plaka oroigarriak bilatuz, elkarte ezberdinak... eta abar.

Guzti hau honela, argi ikusi da lanean zehar memoriari emandako garrantzia, eta hau amaierako ondorioetan ere islatu dut. Ondorio orokor hauek egiteko, interesgarria iruditu zait, goian esan bezala, ni bezalako jende gaztearen artean dagoen memoria ikertzea, eta horretarako Google Drive-ko “Formularios” programa baliatu dut inkesta bat egiteko.

Amaitzeko, gehitu nahi dut lanaz gain eranskinak egin ditudala, hauetan taula ezberdinak eta inkestako erantzunak jarriz, zeinetan datu interesgarriak agertzen diren, gehigarriak direnak.

2. ESPARRU EZBERDINAK IKERTUZ

2.1. Ideologia, egunerokotasuna eta politika

Atal honen helburua garaiko ideologia ezberdinak ikertu eta emakumea nolakoa izan behar zen jakitea da, honek egunerokotasun batean burutuko zituzten lanak edota beste modu batean esanda, beraien funtzio nagusiak ulertaraztera eramango gaituelarik. Ideologiekin lotuta, politikako arloan zein erakundetan parte hartuko zuten ere ikertuko dugu bide batez.

Ideologiaren aldetik, garaiko talde nagusi bezala, errepublikarrak, faxistak eta Euskal nazionalistak sailkatuko ditugu. Garrantzitsua da jakitea, gerrak, azken finean, antolatzeke behar bat ekarri zuela, eta honek, paper eta funtzio berriak hartzeko beharra eragin zuela emakumeengan. Honi loturik, gerrako bi bandoak konparatuz, badakigu prozesu hau azkarragoa izan zela Espainia errepublikarrean, ideologia medio, eta motelagoa errebeldean, izan ere tradizio eta senak pisu ikaragarria izango zuen (Graham, H., 2003). Jarraian, hautatutako hiru taldeak banaka sakonduko ditugu.

2.1.1. Errepublikarrak:

Errepublikarren inguruan hitz egingo dugu lehenengo. Esan bezala, giro aproposagoa zegoen errepublikarren artean emakumeek kontzientzia kritikoa garatzeko eta beraien generoari lotutako rola zalantzan jartzeko. Gainera, urgentziatzko defentsarako beharrak eta lurralde errepublikarrak zatituta egoteak, espazio berriak sortu zituen hauentzako (Capel, R.M., 2007).

Emakume errepublikarrak, faxista eta nazionalistekin alderatuz, kontzientzia politiko eta sozial gehiagoko emakumetzat hartzen ziren, izan ere, bando honetako denek izan behar zuten hau garatuta. Hau horrela bazen ere, gizonaren azpitik egoten jarraituko zuten, izan ere, beren senar eta mutilagunei laguntzera joango ziren esperientzia berrietan, hau erromantizatuz. Azpimarragarria da, hasiera batean frentean aritu zirela, baina denbora gutxiz, izan ere, gaixotasunak zabaldu ahala, emakumeak prostituzioarekin lotzen hasi eta hemen aritzea ukatu zitzaizen, honek erakusten digularik nola sexualitatearekin lotzen ziren. Ondorioz, familiatik gertu geratu beharra eta amatasunaren papera guztiz orokortu ziren “ama borrokalari” bezala izendatuz, zeinak sekulako barne indarra eta heldutasuna izan beharko zuten, familiaren eta kolektiboaren ongizatea ziurtatzeko, etxean eta erretaguardian. Honez gain, heziketa ere nabarmenduko da, emakume errepublikararen ardua izango zelarik haurrei balore errepublikarrak irakastea eta hauen defentsarako borrokatzera bultzatzea (Capel, R.M., 2007). Geroago sakonduko dugun moduan, *Mujeres* izeneko aldizkari bat zuten emakume errepublikarrek, eta Bilbon argitaratutako aleak ikertuz, argi ikusten da frentean zeudenak gizonak zirela, eta emakumeen beharra hauetaz arduratzea zela, tailerretan batez ere hauentzat arropa josiz eta erizain paperak betez. Oro har, aldizkari honetako Bilboko seigarren alean landa guneko emakume errepublikarrez ere hitz egiten da, zeinak gure probintzietan ugariak ziren. Hauei dagokienez, badakigu baserrietan etxe barruan egiten zutela lan, sukaldatuz, haurrak

zainduz, etxea garbituz... gizonek kanpoko lurra lantzen zuten bitartean. Gerraren ondorioz, badakigu emakume hauek gizonaren baserriko papera berenganatu zutela (*Mujeres Bilbao*, 1937).

Beharrezkoa da garbi uztea, erretagoardian geratzeak aurreko lanetan aritzea ahalbidetu zuela, baina politikan ere parte hartzeko aukera izan zuten. Honen adibide, 1931an Clara Campoamorrek sortutako “La Unión Republicana Femenina”, Bilbon asanblada bat egingo zelarik 1932an, Alde Zaharreko Banco de España, 3 helbidean, zehazki. Bertan, hainbat heziketa tailer, propaganda... eta abar egingo zen (Moviéndote elkarte, 2020). Honi dagokionez, gaur egun erabilera anitzeko eraikin bat da, inon agertzen ez delarik asanblada honen berri.

“Fraternidad de Mujeres Modernas”, beste elkarte bat izango zen, 1932an Urizar Dorrean sortua eta Bizkaiko auzo askotara zabaldua. Hauek, afiliatuei sozialki laguntzen zien, familietan ere laguntzak emanez, eta hau aurrera eramateko, “Hogar de la Mujer Moderna” izeneko gune ezberdinak zabaltzen zituzten (Moviéndote elkarte, 2020).

Badirudi, guzti hauek “Asociación de Mujeres Antifascistas”-era batuko zirela azkenerako, PCE-k sustatua izango zena. Talde honek errepublikar asko batu zituen, euskaldun komunista eta sozialistekin batera, baita errepublikar katolikoak ere, frente popular inguruko jendea bait zen. Honekin batera, Bilboko komitea Eusko Jaurlaritzaren sorreratik hiru hilabetera sortuko zen, 1937. urtean, CNT, UGT, CNT eta ANVko militanteak barnebilduz (Moviéndote elkarte, 2020). Esan behar da hainbat erreforma sozial burutu eta bultzatuko zituztela, besteak beste, lansarien berdintasuna, estatuko haurtzaindegien hornidurak babestea, emakumeek lanbidetan aritzean berdintasuna izatea... (Graham, H., 2003).

Aurrez aipatutako gogoratu, *Mujeres* izeneko aldizkaria bat izango zuten informazioa zabaltzeko, bulego nagusia Bilboko Astarloa kaleko 7. zenbakian egongo zelarik, gaur egun Caixabank dena, zeinean ez dagoen oroigarri bat bera ere. Badakigu aldizkari hauek 8-12 orrialdetakoak izaten zirela, gazteleraz idatziak eta testigantzak euskeraz, emakumeek gerran zuten bigarren mailako papera salatuz (Moviéndote elkarte, 2020). Lehenengo eranskinari erreparatu, Bilboko *Mujeres* aldizkariko karguak ikus daitezke, ondorioztatzen delarik ideologia ezberdinetako jendea batzen zela.

2.1.2. Faxistak:

Faxistei dagokienez, 1934. urtean Pilar Primo de Rivera buru zelarik eta kargu hau betirako hartuz, “Sección Femenina” sortuko zen. Hauek, Falangearen barnean kokatuko ziren, eta doktrina katoliko eta tradizionalista erakutsiko zuten. Era berean, hau zabaltzeko zentro batzuk zituzten, non emakumeak hezten ziren, falangearen formazio politikoa erakutsiz, formazio erlijiosoaz gain. Gainera, ideologia berekoa zen erregimenak, goi eta erdi mailako ikasketak egitea zailtzen zien emakumeei, dibortzioa, adulterioa eta abortua ere debekatuz. Hauen aburuz, emakumea etxean edota heziketan lan egiteko zen, eta kanpoan lan egiten zutenek gizonak baino askoz baldintza txarragoak izango zituzten. Halaber, hauen funtzio nagusia, aberriari haurrak ematea zen, hemen nazionalismo espainiar bat nabarituko delarik (Graham, H., 2003).


Guzti hau, “Y” izeneko aldizkariaren bidez bultzatuko zuten. Behean agertzen diren irudietatik abiatuz, ama eta etxeko andre on bat izateaz gain emakumeak beste zenbait ezaugarri izan beharko zituela ikusten da. Hauen artean, langilea izatea, hantusterik ez egitea, aurpegi ona erakustea, ausarta izatea... baita gizonari obeditzea ere exigitzen zitzaien, genero zapalkuntza modu oso argian ikustaraziz.



1 eta 2 irudiak: “Y” aldizkariako orrialdeak. Emakumea nolakoa izan behar den erakusten dute.

Iturria: Biblioteca Nacional de España: “Y” *Madrid*, 2, 1938ko martxoa, 56-57. or.

Gainera, ezberdintasuna egongo da emakume ezkondu eta ez ezkonduen artean. Azpian ikusten den argazkian, mutilagunak eta senarrak ezberdintzen ditu “Y” aldizkariak, bi egoeretan jarrera ezberdina erakutsi beharko zutelarik emakumeek. Beheko irudian argi ikusten da askatasuna gehiago mugatzen dela ezkontzerakoan.



3. Irudia: “Y” aldizkariko orrialdea. Emakume ezkonduak eta ezkongabeak ezberdintzen dira. Iturria: Biblioteca Nacional de España: “Y” *Madrid*, 3, 1938ko apirila, 9. or.

Halaber, badakigu, “Sección Femenina”-ko kideek, asistentzia soziala eta osasungintzarako paperak betetzera bideratuko zituztela emakume hauek, beraien generorako lan proposak izango zirelarik. Lan hauek burutzeko, “Auxilio Social” sortuko zen, non klase baxuenetako pertsonak egingo zuten lan. Aurrez ikertutako errepublikarrekin alderatuz, deigarria da faxisten taldean ez zela mobilizazio industrialik eman. Ezberdintasun orokor honek, ordea, ezin gaitu errepublikarren giroa giro feminista bezala ulertzera eraman, izan ere, askok hau momentuko aldaketa bezala ikusten zuten, dena bukatzean aurreko egoerara itzultzeko asmoz, hau da, emakumea bere generoari lotutako lanetara itzuliko zen (Graham, H., 2003).

Alde batetik, deigarria da, “Seccion Femeninak”, Espainia mailan 1937 hasierarako sekulako hazkundera jasan zuela, 60.000 inguru izatera irisitz (Pérez, A., 1996). Bestetik, hauen egoitzari erreparatuz, jakin dugu Castillo de la Motan kokatuko zela, Medina del Campon (Valladolid) (Graham, H., 2003). Turismoko web orrialdetan agertzen da “Sección Femenina” egon zela bertan baina ez dago plaka bereizgarririk.

2.1.3. Euskal nazionalistak:

Euskal nazionalistena beste talde garrantzitsu bat izango dugu, zeinean ere, talde faxistan bezala, erlijio katolikoak berebiziko pisua izango duen. Honi loturik, emakume nazionalisten funtzio nagusienetako bat, aurreko bi taldeetan emango den bezala, amatasuna izango da, honekin batera emakumea berriz ere ugalketa funtzioarekin lotuz. Nazionalistentzat emakumea izango da arraza euskalduna mantentzea ahalbidetuko duen tresna bakarra, eta honek semeari nazioarekiko maitasuna transmititu beharko dio, euskal kultura eta hizkuntzarekin batera. Ez hori bakarrik, familiaren sostengua ere izango zela esatea aipagarria da, izan ere, hauentzat familia harro egoteko zerbait zen, purua izango zelarik. Nola ez, familiako nukleoak patriarkalak izango ziren “etxeke jaun”, eta emakumea azpitik egongo zen “etxeke andre” (Elorza, A., 1978: 16).

Euskal nazionalismoan, emakumearen lekua batik bat sinbologian geratu dela esatea azpimarragarria da, izan ere, gizonen zuzenduko zuten nazionalismoa, eta emakumea ezingo zen lehen planoan geratu. Sinbologian erabiltzearen arrazoia, ordea, ez da soilik hau izango, izan ere, emakumea “Ama Euskadi”-rekin lotzen zen, hau sufritzen ari den pertsonaia izango delarik, generoa berriz ere ahultasunarekin lotuz (Elorza, A., 1978). Honez gain, amaren irudia agertzen denean, ez du ematen hau bere buruagatik arduratzen dagoela, inguruko pertsonai maskulinoengatik dago sufritzen, hauek baitira armekin borrokatzera joan direnak. Era berean, emakumeek feminitate tradizional bat erakusten dute, edertasun, purutasun eta kastan oinarritua, eta euskal nazionalismoaren defentsore izango dira, hauen helburua ezkontzea izango delarik, nazioak jarraikortasun bat izan dezan. Ondorioz, maitasunak familia eratzean datza, eta nazionalismoarekin lotuz, familia honen helburua nazioa eta arraza mantendu eta nazioaren baloreak ondorengoei erakustea izango da. Honekin batera, ikusten da ere familia eredu denak heterosexualak eta patriarkalak izango zirela (González, I., 2014).

Jarraiki, ideologia hau kontutan hartuz, politikaren arloan murgilduko gara. Emakume nazionalistak “Emakume Abertzale Batza”-ren bitartez antolatuko ziren, “Juventud Vasca de Bilbao”-tik sortu zena, 30eko hamarkadara arte honi loturik arituz eta azkenerako independenteki ibilbide bat sortuz. Testuingurua medio, 17 hilabetez arituko ziren legalki, ondoren diktadura frankistan ilegalizatu ziren arte. Nahiz eta euskal lurraldeetan zabalduta egon, jakin behar dugu hasiera batean elkartea Bilbora mugatzen zela, errepublika aurretik hain zuzen ere, baina 1931. urtean zabalpena gertatuko zen, Bizkaiko herri ia denetara helduz. Gipuzkoari dagokionez, hona erritmo mantsoago batean helduko zen, gune garrantzitsuenak Eibar eta Azkoitia izango zirelarik. Nafarroa eta Arabaren kasuan, ordea, nukleo isolatu batzuk aurkitzen dira (Elorza, A., 1978).

Zabalkuntzarekin jarraituz, esan behar dugu inaugurazioak egiten zituzten une bakoitzean kontzentrazio masiboak ematen zirela, jaiak antolatuz propaganda egiteko eta jendea erakartzeko. Horrela, 1936. urteko hauteskundeetan 38 ekimenetan parte hartu zuten jada, honek mobilizazioetan oso murgildurik zeudela ulertarazten digularik. Alde batetik, bigarren eranskinari erreparatuz, gerra hasierako elkarte kopurua jakin daiteke, baieztatuz gehienak Bizkaian egongo zirela, gutxien, aldiz, Nafarroa eta Araban. Beste aldetik, hirugarren eranskinari so eginez, kargu ezberdinak ikusi ahal ditugu.

Ez hori bakarrik, antolakuntza politiko honen lan garrantzitsuenak euskararen eta euskal kultura bultzatzearen arloan murgiltzen ziren. Haurren heziketaren ardura berenganatzen ziren, eskola euskaldunak sortuz eta folklorea eta nazioaren baloreak bertan landuz. Hurrez gain, emakume abertzale oro prestatzen zuten lan domestikoak, erakusketa praktikoak... burutzeko (Elorza, A., 1978).

2.2. Errepresioa: kartzelak

Errepresioa aztergai dugun beste gai bat da, izan ere, Ángeles Egido León-ek bere “Mujeres y rojas: La condición femenina como fundamento del sistema represor” artikuluan oso argi uzten digun bezala, egia da Gerra Zibilean eta gerraostean garaituek jasandako errepresioaren inguruan asko ikertu dela, datu esanguratsuak lortuz, baina Egidok azpimarratzen duen bezala, errepresioaren zati garrantzitsu bat ikertzeaz dago, kartzelaratuak emakumeei dagokiena hain zuzen ere (Egido, A., 2011: 19).

Hau genero ikuspegi batetik ikertzea beharrezkoa iruditzen zait, errepresio ezberdindu bat ematen den aldetik. Ezberdintasuna oso argi ikusten da adibidez indukzioa eta ardura subsidiarioaren kasuetan. Lehenengoari dagokionez, moralarekin lotzean datza, edota baita delitua modu ez zuzen batean egitearekin. Aurrez ikusi dugun garaiko ideologia frankistatik abiatuz, emakumea ez zen gai izango bere kabuz delituak burutzeko, eta askotan gizonaren delituetako eragileztat edota parte hartzaileztat hartuko zen, honen azpitik geratuz. Gizonaren delituetan edukitako influentzia hau, gainera, familiako ardatza izatearekin justifikatuko zuten, esparru honetan izango zuen pisu ikaragarria behin eta berriro ikusaraziz. Bestalde, ardura subsidiarioa ere familiako esparruarekin lotzen da, izan ere, gizon bat jarraitua zenean, batez ere gerraostean, aurkitzen ez bazen, bere ordeztan familiako emakumeak atxilotzen zituzten. Gerraosteko garrantzi hau, gainera, gizon iheslariarekin lotuko zen, emakumeek gizonen ihesaldietan ere lagundu egingo zutelarik, hau delitu politikotzat hartuz (Egido, A., 2011).

Delitu politikoekin jarraituz, aurreko atalean ikusi dugun bezala, emakumeek ez zuten inongo protagonismo politikorik izango, hemen ere bigarren planoan geratuz. Ondorioz, espetxeratutakoen artean gutxi batzuk baino ez zituzten kargu politiko edota sindikalak izango. Honek ez du esan nahi besteak arrazoi politikoekin lotuko ez zirenik, izan ere, nahiz eta karguak ez eduki, beraien ideologiagatik kartzelaratu zituzten, hemen ere esanez ideia hauek beraien familietako gizonengandik etorriko zitzaizkiela. Honek, alde batetik, oso argi uzten digu pairatzen zuten egoera matxista, produkzio ideologiko bat edukitzeko gai ikusten ez zituztelarik, ezta edozein delitu burutzeko ere (Egido, A., 2011).

Errepresio ideologiko honekin heziketa lotzen da, izan ere, kartzelen helburua erregimenak nahi zituen bezalakoak bihurtzea izango da. Hau gutxi balitz, garbiketa ideologikoaz gain, emakumeek ere garbiketa espiritualala jasan beharko zuten, aurrez ikusi dugun bezala, estatuarentzat emakume ideal bihurtzeko. Heziketa honetarako, ezinbestekoa izan zen mojen papera, hauek hartuko zutelarik emakumeen gaineko ardura. Honi lotuta, oso garrantzitsua da esatea, kartzelak ikertzerakoan argi ikusi dudala askotan emakumeen kartzelak ez zutela espetxe itxurarik, gizonenek bai, ordea. Emakumeen kartzelak normalean mojen konbentuak izaten ziren (Egido, A., 2011).

Heziketa hau, emakumeez gain, haurretan ere emango zen, emakumearen errepresioan haurrek sekulako garrantzia izan zutelarik. Hauek beren amekin espetxeratzen zituzten, baina soilik hiru edo lau urtera arte, ondoren erregimenak amengandik urrunduko zituelarik. Hau zigor bikoitz bat bezala uler dezakegu, izan ere, sufrimendu propioa jasateaz gain hurrei lotutakoa ere jasan beharko zuten. Halaber, urruntze honen helburua haurrek amen ideologiak ez barneratzea eta sufrimendua areagotzea izango zen, xantaia emozionala eginez (Egido, A., 2011).

Oro har, ikusten ari gara ideologia faxistan erlijioak zuen pisu ikaragarria, emakumeak kartzeletan erritu erlijiosoetan parte hartzea behartuta egongo zirelarik. Honi lotuta, konfesioen garrantzia berebizikoa da, exekutatu aurretik ere egin beharko zituztelarik. Honen arrazoi bat, emakume errepublikar hauek bekatu asko egitearekin lotuta egongo zirela da, hemen deigarria izango delarik kartzelaratuak asko prostituta edo emagalduek zirela, moralean ez ezik higieanean ere sekulako eragina pairatuz. Jakina, sexualitatea gai tabua zen eliza katolikoan, eta beraz, gai honen inguruan oso testigantza gutxi daude (Egido, A., 2011).

Dakigunez, emakume hauek beraien bizitzako zati handi bat kartzelan pasatuko zuten, eta honek sekulako eragina izan zuen beraien etorkizuneko bizitzetan. Alde batetik, hain garrantzitsua zen familia eredia sortzeko aukera galdu zuten, gizonak borrokan zeudelarik eta umeak beraiengandik aldendu zituztelarik. Beste alde batetik, lan mundua dugu, eta hemen, esan behar da emakumeak, gizon asko ez bezala, ez zirela kartzelatik irtetzen lan egiteko, garaiko ideologiak ez baitzuen ahalbidetzen emakumea lan munduan aritzerik. Guzti honen aurrean, estrategiak garatu zituzten kartzela barruan, besteak beste, aktibitate kulturalak eta jarduera politiko klandestinoak. Formaziorik ez zutenei erakustea eta eztabaida politikoak egitea ohikoa izango zelarik, liburutegi klandestinoak baliatuz, eta baita ezkutuko jaialdiak ere (Egido, A., 2011).

Azkenik, emakume errepublikar hauek zituzten zigor espezifikoak modu orokor batean aipatu nahi ditut, gizonen zigorrekin ezberdintasunak dituztelako. Famatuena ilea moztea, errizino olioaren erabilpena eta bortxaketak izango ziren. Lehenengoari dagokionez, emakumeak ilea moztu eta kaleetatik barrena ibiltzera derrigortuak izaten ziren, herri osoaren aurrean markurtzeko tresna gisa. Bigarrena, errizino-olio gaindosiak ematean zetzan, hau libragarria zelarik. Kantitate asko hartzean, emakumeek pixa eta

kaka gainean egingo zituzten, denen aurrean modu lotsagarri batean geratuz. Amaitzeko, bortxaketei dagokienez, oso modu krudel eta bortitzetan egiten ziren, falangistek sekulako jarrera matxista izanik bai herriak hartzean, komisarietan edota kartzeletan (Egido, A., 2011).

Jarraian, kartzela espezifiko batzuetan zentratuko naiz, baina honen aurretik gauza batzuk jakitea beharrezkoa da. 1939. urtean, gerraren amaiera eta frankismoaren hasierarekin batera, kartzelak kolapsatu egin ziren atxiloketa masiboengatik. Honen aurrean, gune egokituak zabaldu zituzten, eta ondoren, zigor luzeetarako prisio zentral edota iparraldekoetara pasatu zituzten, Euskal lurraldeetan Durango, Zornotza eta Saturraranekoa izango zirelarik (Egido, A., 2011). Nik lau kartzela esanguratsu hautatu ditut, egokitu bat eta iparraldeko hiru kartzelak: Orue-ko txaleta, Durangoko kartzela, Zornotzako kartzela eta Saturraraneko kartzela. Orue-koa lauretatik ireki zen lehena da, Bilboko kartzela probintzialak gainezka egin eta bertako emakumeak hartzeko. Honen harira, 1938an, Saturraran irekiko zen, Bizkaiko emakume asko bertara eramateko, baina kolapsoengatik, Zornotza eta Durango zabaldu ziren ondorengo urtean. Dakigunez, ohikoa zen Espainia osoko jendea egotea euskal kartzeletan, batez ere iparraldekoetan, gerraosteko espetxe politikek presoak asko mugitzen zituztelarik. Noski, hauetara joan aurretik Orue bezalako egokituetatik pasa beharko ziren (Calvo, M., 2020). Laugarren eranskinari begiratuz, hautatutako adibide espezifikoaren kronologia eta kokapenak argi ikus daitezke.

2.2.1. Orue-ko txaleta:

Lehenengo aztertuko dugun kartzela Orue-ko txaleta izango da, baina hau ulertzeko, lehenbizi Bilboko kartzela probintziala aipatu behar dugu, Larrinaga deiturikoa. Izan ere, hasiera batean Bizkaiko emakume kartzelaratuak hemen sartu zituzten, baina aurrez aipatu dudana bezala, kolapso egoeratik, Orue-ko txaletaren irekiera eman zen, egokitutako prisio bezala ulertzen duguna (Calvo, M., 2020).

Orue-k, 3.000 emakume inguru hartuko zituen 1937-1942 artean. Kokapenari dagokionez, Bilboko Santutxu auzoko Zabalbide kalean kokatuko zen, Larrinagatik 400 metro eskasetara. Kokapena ez zen ausazkoa izan, gertu egoteak bigilantzia erraztuko zuen aldetik. Gainera, Santutxu auzoa gune altu bat zen, jende gutxi bizi zena, eta honek nolabait aislatuta egotea eragingo zuen (Calvo, M., 2020). Honez gain, txaletaren alboan

eraikin erlijiosoak aurkitzen ziren, eta hau ez zen kasualitatea izango (Calvo, M., eta Fernández, J., 2016). Bostgarren eranskinean arreta jartzen badugu, bertako presoen profilak agertzen dira, gehienak Bizkaikoak direla ikusiz.

Delituen arloan murgilduz, esango dugu errebelamendu militarrek sekulako pisua izan zuela, nahiz eta erdiak baino gehiago epaituak ez izan, ez ziren aske geratuko, eta susmagarritzat hartuko zituzten. Oso delitu garrantzitsuak ziren ere hitzezko delituak, eskuineko jendearen edota mugimendu nazionalaren aurka egindakoak batik bat. Hau gutxi balitz, aurrekari politiko eta sozialak ere ikertzen ziren, eta aurrez esan bezala, nahiz eta emakumeek kargu politikoak edota milizietako karguak ez izan normalean, atxilotu egiten ziren. Honekin, beldurra sartzea eta ideologia bat inposatzea bilatzen zen (Calvo, M., 2020).

Txaletaren egituraren azterketan murgilduko gara jarraian. Honek, bere osotasunean 7.500 m² izango zituen, bost solairutan banatuak. Dakigunez, hauetan edozein modutan sartzen zituzten emakumeak eta haurrak, eta solairuen erabilerak aldatuz joango ziren. Hasiera batean behintzat, sotoan sukaldea eta komunak egongo ziren, dutxekin batera. Lehen solairuan, bulegoak, kontsultategiak, josteko gela eta ekonomatua, eta beste solairu guztietan logelak, guztira 3.400 m² okupatzen zutenak (Calvo, M., 2020). Honekin kalkulatzen da, zazpi metro karratu zituela emakume bakoitzak gutxi gora behera. Gainera, logela hauetan lurrean egiten zuten lo, manta batekin estalita (Calvo, M., eta Fernández, J., 2016).

Etxearen ingurua ere aipagarria da, laborantza paisaia osatzen zelarik, non txakolia egiteko mahastiak aurkitzen ziren, jardinak ere ikus zitezkeelarik, burdinezko hesiek inguratuta. Hesiei dagokienez, esan beharra dago bertako segurtasuna eta argiztapena ardua bat zirela, sarrerako hesia egoera txarrean zegoelarik. Segurtasunagatik, gainera, Bizkaiko gobernu mitilarrak Zabalbide kalera emango zuen sarrera bat tapiatu zuen. Argiztapena ere arduratzat aipatu dugu, eta honi dagokionez, jakin behar da gobernadore militarrek gauerditik aurrera argia kentzen zutela, aireko erasoei beldurra zietelako (Calvo, M., eta Fernández, J., 2016).

Eraikinaren historian pixka bat murgilduz, esan behar da Orue familia karlista zela, eta gerra hastean ihes egin eta etxea Santa Marta klinika ginekologikoa bihurtu zela.

Ondoren, kartzela bihurtu eta gaur egun aurki ditzakegun bizileku pribatuak diren etxe-blokeak egin ziren, auzoa hazten ari zen aldetik (Calvo, M., eta Fernández, J., 2016).

Bertako egunerokotasunari dagokionez, beraien generoan “propio” ziren gauzak egitera bultzatzen zituzten. Erlijio katolikoan murgiltzera behartuz, amatasuna lortzeko bideratzen zituzten, eta instruktore eta irakasleen bitartez gauza praktikoak egitera bultzatzen zituzten, besteak beste poltsoak, jostailuak, zapatak... egitera. Hemen ere, beraien artean laguntzen ziren, eta %75 emakume alfabetatuak ziren, hauek besteei alfabetatzen lagunduko zielarik. Kartzela honetan ere, garrantzitsua izan zen lehen solairuko josteko gela, izan ere, gerraostean arroparen behar handia zegoen Bilbon, eta preso hauek fabrikazioan parte hartu zuten (Calvo, M., eta Fernández, J., 2016).

Ingurugiro honetan hainbat arazo aurkitzen ditugu. Lehenik eta behin elikadura eta higiene eskasa. Oso kantitate txikiak jaten zituzten, eta ia beti pasatutako arroza izaten zen. Gainera, ezberdintasuna zegoen bertako eta kanpoko presoen artean, izan ere, bertakoei, familia edo lagunak janaria eramaten zien kartzelara, baina probintziakoek ez zuten abantaila hau. Honek antibitamosia ekarriko zien, osasuneko arazo larria zena. Urari dagokionez ere, ez zegoen grifoko urrik, hau putzuetatik ateratzen zuten, izan ere, aurrez aipatu bezala, eraikinaren inguruan laborantza paisaia aurkitzen zen, beraz, iraganetik ur-putzuak mantentzea ez zen arraroa. Ura lortzeko zailtasun edota eskasia honek, beraz, beraien gorputzak gutxi garbitzea ekarri zuen. Guzti honek larriki eragin zuen emakumeek osasunean, eta ez zuten erantzun on bat ematen zien osasun zerbitzurik txaletean bertan. Txaletean zegoen medikuntza zerbitzuaren soluzio bakarra, askotan, gaixoak aislatzea zen, eta nahiz eta gero aurrerapen gehiago etorri, ez zuten gaitasunik izan hauek sendatzeko. Dena den, ez dago argi zenbat preso izan ziren Oruen hildakoak, baina 20 emakume fusilatu aurki ditzakegu gutxienez (Calvo, M., eta Fernández, J., 2016).

Amaitzeko, esan behar dugu 1942. urtean eman zitzaiola amaiera txaletaren erabilerari, eta emakumeak berriro Larrinagara eraman zituztela (Calvo, M., 2020).



4 eta 5 irudiak: Ezkerrean, Orue-ko 1956-1957. urteetako aire argazkia, eta eskuinean 2021ekoa. Iturria: Geoeuskadi bisorea.

Goiko irudietan ikusi daitekeenez, txaleta ez da existitzen gaur egunean, eta etxebizitza blokeak egin dira hau zegoen lekuan. Honek, memoria sozialean asko eragin du, ikusi ezin delako, batik bat.

2.2.2. Durangoko kartzela:

Ikertuko dugun bigarren kartzela Durangokoa da, urtebete soilik iraun zuena, 1939an irekiz eta 1940an itxiz eta 2.000 preso inguru pilatuz. Kokapenari dagokionez, Durangoko herrian bertan kokatzen da, Bizkaian, eta mojen konbentu bat izango zen, Nevers ikastetxea.

Bertako presoek dagokienez, bazeuden Euskadiko presoak, baina gehienak kanpotarrak izango ziren, batik bat Extremadura eta Galiziako ezkertiar fusilatuen alargunak (Juan de los Toyos Fundazioa, 2019). Gauzak horrela, kanpoko emakume hauek trenean ekartzen zituzten Durangora, oso baldintza eta egora txarretan, trenak gainezka etorriz. Are gehiago, arnasteko arazoak ere egoten ziren, izan ere, goiko aldean leiho txiki bat baino ez zuten edukitzen. Gainera, 2-3 eguneko bidaiak izaten ziren normalean, eta kalkulatzeko da soilik egun baterako janaria ematen zitzaiela, honi gehituz askotan hurrekin partekatu behar izaten zutela. Baita, heltzean, soldaduek beraien izena oihukatzen zuten, eta presoek abizena esaten zuten jarraian. Horrelakoa izaten zen presoek iritsiera (Gorosarri, M., 2011).

Preso hauen profilak pixka bat gehiago ikertuz, esango dugu preso politiko eta sozialak biltzen zirela kartzela honetan. Preso politikoei dagokienez, gehienak politikan jardun zuten emakume gazteak edota adineko emakume eskolagabeak izaten ziren, eta preso sozialak, ordea, prostituta autonomoak. Prostituta autonomo entzutea harrizkoa da gaur egunean, baina kontutan izan behar dugu erregimen frankistak proxenetarekin jardutea legezkotzat jotzen zuela. Prostitutez gain, preso sozialak abortatu nahi ez zutenak ere izaten ziren, besteak beste. Garrantzitsua da esatea preso politiko eta sozialen artean gatazkak izaten zituztela, izan ere, prostitutek sexualitate irekiagoa izaten zuten, eta beraien artean bikote lesbikoak osatzen zituzten, harreman sexualak izanez preso politikoen inguruko informazioa espetxeko zaindariei ematearen truke. Honen aurrean, preso politiko ziren emakumeek mesfidantza sentitzen zuten besteengan, espetxeak honen aurrean erantzuna eman zuelarik. Prostitutak goiko solairura eramane zituzten, eta honi “shangai” deitzen zitzaion. Horrela, preso politikoak beheko pisuan geratu ziren, eta espetxeko zaindaries gora igotzearekin mehatxatu eta zigortzen zituzten, izan ere, eraikinak ez zuen inongo isolamendu gelarik (Gorosarri, M., 2011).

Presoen arteko harremanak ikertzen jarraituz, beraien artean laguntzen zirela ikusi da, elkartasun autonomoa osatzen zutelarik, honi “familia” deitzen zitzaion. “Familia”-ren funtzionamendua ondokoa da: 3 kidek osatzen zuten taldea, bata emakume gaztea, bigarrena adineko emakumea eta azkenik tokiko pertsona bat. Guztiek ezaugarri, abantaila eta desabantaila ezberdinak zituzten, eta beraien artean konplementatuz laguntzea zen helburua. Horrela, neska gazteek, idazten zekiten aldetik, besteei alfabetatzen erakusten zien, formazio politikoa ere eskainiz, faxisten zigorrak hobeto ulertarazteko asmoz. Emakume nagusiak ere bere ikaspenak partekatuko zituen besteekin, eta tokikoak, bere familia eta lagunengandik jasotako paketeak beste biekin partekatzen zituen (Gorosarri, M., 2011).


Durangoko emakumeek presoekin egindako erlazio ona ere azpimarragarria da, izan ere, oso ongi portatu ziren hauekin. Kontutan izan behar dugu, garaian bertan, preso errepublikarrei laguntza ematea arriskutsua zela, baina askok jada ez zutela ezer galtzekorik. Hau horrela, emakume hauek presoak iritsi ziren lehen egunetik hasi ziren kartzelara janaria eramaten eta ezagutzen ez zituzten presoak (kanpotik etorritakoak) bisitatzen. Honez gain, kanpotik etortzen ziren preso senitartekoak ere etxean hartzen

hasi ziren, nahiz eta hauek ez ezagutu. Atal honetan ikusiko dugun moduan, haurren egoera oso kaskarra zen, eta esne falta zegoen. Egoerari erantzunez, Durangarrek esne pitxerrak eramaten zizkien, eta haurrak beraien etxeetan hartzen hasi ziren, noizean behin ama bisitatzera eramanez (Gorosarri, M., 2011).

Eraikinari eta bertako bizitzari dagokionez, argi utzi behar da oso egoera kaskarrean bizi zirela. Hasteko, ur eta janari falta izugarria aipatu behar da, askotan bazkaltzeko erabiltzen zuten plater bera afaltzeko ere erabiliz, ura ez zegoenez ezin zutelako garbitu. Oso janari kantitate txikiak ematen ziren, batik bat arroz zopa eta tipula zopa, eta gainera presoek janari hau beren haurrekin partekatu behar izan zuen. Honen ondorio, haur asko hiltzen hasi ziren, baina aurrez esan bezala, Durangoko emakumeek esne pitxerrak ekartzeak eta beraien etxeetan hartzeak lagundu egin zuten. Ur faltak higieanean ere eragiten zuen, noski, izan ere, ez zegoen dutxarik, edota ez zuten funtzionatzen, beraz, astean behin edo hilean behin garbitzen ziren, honek epidemiak ekartzen zituelarik. Honi gehitu behar zaio, garaiko ideologia zela eta, emakume helduek guztiz barneratuta zutela pubisa ez zela garbitu behar, sexualitatea ere gai tabua zelarik, baina gazteagoek bai garbitzen zuten, laikoak zirelako. Kontutan izan behar dugu pubisa inoiz ez garbitzea oso arriskutsua izan daitekeela. Txandak egoten ziren dutxatzeko, eta minutuak errazionatzen ziren, 3 ordu zituzten 2.000 pertsona garbi zitezten. Dutzak eta komuna beheko solairuan aurkituko ziren. Logelei dagokienez, Oruen bezala, lurrean egiten zen lo, oso espazio txikietan pilatuz, eta gela oso zahar eta zikinak izaten ziren, haurrengan batez ere sekulako infekzioak sortuz. Aipagarria da ere, baldintza txar guzti hauek pilatuz, emakumeei hilerokoa joan egiten zitzaizela askotan urte batzuetarako. Honez gain, emakumeak derrigortuta egoten ziren eraikineko lurzorua goizeko belauniko garbitzera, mojek bigilatzen zituzten bitartean (Gorosarri, M., 2011).

Eraikinak ere bazuen patio bat, eta arratsaldeetan ereserki faxistak kantatzera irteten ziren bertara, soldadu armatu batzuek bigilatzen zituzten bitartean. Heziketa eta errepresio politiko honen baitan ere, eraikina Franco-ren kartekez josita zegoela esan behar da, baina emakumeek, honen aurrean, kontzientzia politiko errepublikarra mantentzen zuten (Gorosarri, M., 2011).

Amai dezagun esanez bost emakume eta sei haur hil zirela Durangoko kartzelan, 1940. urtean itxi zen arte. Badakigu, ixtearekin batera, zeuden presoak aztergai ditugun Orue, Zornotza eta Saturraranera eraman zituzten, Santanderrez gain (Juan de los Toyos Fundazioa, 2019).



5 eta 6 irudiak: Ezkerrean, Durangoko 1956-1957. urteetako aire argazkia, eta eskuinean 2021ekoa. Iturria: Geoeuskadi bisorea.

Argazkietan ikus daiteke eraikina mantentzen dela, baina berriztapenak eta aldaketak egin dira, “Hermanas de la Caridad y de la Instrucción Cristiana de Nevers” kristau eskola izango delako. Aldaketa hau emateaz gain, badirudi memoriagatik ere arduratu dela batez ere “Ahaztuak” elkarteak, plaka oroigarria jarriz eta ekitaldiak eginez.

2.2.3. Zornotzako kartzela:

Zornotzako kartzela aztergai dugun beste gune bat da. Honen ikerketarako, Ascensión Badiola Ariztimuño izan dut erreferentetzat. Hau historia garaikideko doktore bilbotarra da, Zornotzako kartzela sakon aztertu duen ikertzailea ere badelarik. Gainera, gai honi dagokionez, “Individuas peligrosas” liburua publikatu zuen 2019. urtean, eta hau oso lagungarria egin zait, ia ideia denak hemendik atera ditudalarik.

Lehenik eta behin, kontestuan jartzeko, jakin behar dugu, Zornotza Bizkaian kokatzen dela, hau da, hasiera batean bando errepublikarrean, baina 1937ko maiatzaren 18an hartuko dute, atxilotetak hasiko zirelarik. Atxiloteta hauen harira, 1939ko abuztuaren 15ean irekiko zen kartzela, hasiera batean “El Hospital Prisión de Mujeres de Amorebieta” izango zena. Hospitale hau Zornotzako herriaren erdialdean kokatzen zen, eta izaera erlijiosoak zuen, noski, karmelita zen, eta San Jose-ko 8 moja eta gaineko zen

Simona Azpiroz bertako gestio ekonomikoaz, diziplinaz, kontrolaz eta espetxearen bigilantziaz arduratuko ziren (Badiola, A., 2019).

Jakin badakigu, hasiera batean zentro egokitu bat izango zela, Orue bezala, baina 1940ko martxotik aurrera, prisio zentral bihurtuko zen, bakarrik preso politikoak hartuz, zigor luzeak beteko dituztenak, epaituak izan ondoren. Bilboko kartzelak, ordea, zigor motzetarako izango dira, beraz, bitartekariak beste nonbaitera joan arte. Guzti honen ondorioz, Zornotzako preso gehienak ez ziren euskaldunak izango, Ventas (Madril), Asturias, Andaluziakoak... izango ziren batik bat. Hauek ere, Durangora zetozenak bezala etortzen ziren, bagoiak gainezka eta leiho oso txikiekin, egoera penagarrian. Datuak ikusita, ondorioztatu dezakegu emakume euskaldun gehienak beren herrietatik urrun aurkituko zirela, eta hau zigor psikologiko bezala ere uler daiteke. Datuei dagokienez, 1945. urtean 19 emakume euskaldun soilik aurkitzen ditugu Zornotzan (Badiola, A., 2019).

Kartzela honek 1939tik 1947ra bitartean iraun zuen funtzionamenduan, eta urteen arabera, preso gehiago edo gutxiago agertzen ziren, 1943-1944 artean itxiera tenporal bat ere izan zuelarik, izan ere, 1943. urtean lege berri bat atera zen. Honen arabera, 20 urtetik beherako zigorrak zituzten pertsonak aske geratu beharko ziren, eta Zornotzak ateak itxi eta jendea Saturraranera pasatu zuten, hau gainezka geratu zen arte eta berriz Zornotza ireki eta presoak itzuli ziren arte (Badiola, A., 2019).

Haurrei dagokienez, beren amekin egiten zuten lo, denak pilatuta, oso espazio txikietan, eta lasto edo belarrez betetako 40 zentimetroko koltxoietan, eta gainera, gaixotzean ignoratuak izaten ziren. Badakigu lau urterekin amengandik urruntzen zituztela, baina Zornotzan, lau urte bete arte ere mojek sekulako zailtasunak ematen zizkien amei beren haurrak ikusteko (Badiola, A., 2019).

Zornotzako kartzelak ere bazuen patio bat, baina oso txikia zen zegoen preso kopurua kontutan hartuz. Bata bestearen gainean egoten ziren patioan ere, eta sekulako hotza jasaten zuten. Baratze bat ere bazegoen, baina presoak ezin ziren bertara joan, hau da, kartzela barruan ere, mugitu ahal ziren lekua mugatua zen (Badiola, A., 2019).

Eguneroko bizitzan murgilduz, esan beharra dago Zornotzako presoek bereziki sekulako gosea pasatzen zutela, beren gosaria adibidez ur beroa izaten zelarik. Honen aurrean, mojek esaten zien salda zela, baina ez zuen zaporerik, eta ematen zien gainontzeko janaria oso kantitate txikietan banatzen zen. Mojek engainatzeaz gain, diziplina edukitzea exigitzen zien, baina oso modu krudelean, batez ere Simona Azpiroz-ek. Lehenik eta behin, heldu berriak isolamenduan jartzen zituen lehenengo 8 egunetan, eta aurrerago, edozein gauzogatik isolamenduaz zigortzen zituzten. Aurrekoaz gain, mojek lan egiteko tailerrak eta formakuntza eskeintzen zituztela dirudi, lan egindako egun batengatik zigorreko egun bat kentzen zitzaielarik. Honen aurrean, arazo bat zegoen, izan ere, hau gazteleraz zekiten presoek soilik uzten zien, eta euskaldun askok ez zekien (Badiola, A., 2019).

Lanaren esparruarekin jarraituz, josteko tailerrak ziren famatuenak, 1940ko otsailean sortuak. Hemen, mojen bigilantzian egiten zuten lan, gerora hainbat argazki publikatuz, propaganda egin nahian. Halaber, honek ideologiarekin sekulako erlazioa du, emakumearen rola publiko egin nahi baitzen, bide batez erakutsiz ejerzito faxistari arropak egiten zizkiela (Badiola, A., 2019).

Edozein modutan ere, nahiz eta kanporanzko irudi ona eman, barneko egoera oso gogorra zen, aurrez aipatu ditugun egoera gogor guztiek sekulako osasun arazoak eta heriotzak ekarriko zituztelarik. Horiek horrela, zornotzan ez zegoen arreta medikurik, eta nahiz eta 1940. urtean lehen solairuan erizaintza jarri, ez zen gaixotasunak gelditzea lortu. Osasunarekin lotuta, higiene falta zegoen, izan ere, kartzelaren lehen lau urtetan ez zen dutxarik egongo. Guzti honek, noski, hainbat heriotz erakingo zituen, adibidez, 42 emakume eta 6 haurrena, gehienak 1940-1942 bitartean, gose gehien pasa zen urtek izan zirelako. Hemen, aipagarria da esatea presoek gose greba bat egin zutela, baina hau ezin dugu eduki politikoarekin lotu, beharragatik soilik antolatu baitziren. Amaiera bezala, 1947ko azaroaren 19an espetxea guztiz itxi zen (Badiola, A., 2019).



7 eta 8 irudiak: Ezkerrean, Zornotzako 1956-1957. urteetako aire argazkia, eta eskuinean 2021ekoa.
Iturria: Geoeuskadi bisorea.

Argazkietan ikusten den bezala, eraikina mantentzen da, ordea, aldaketa batzuekin, Durangon gertatzen den bezala. Hemen ere, ikastetxe funtzioa izango du eraikinak, eta “Ahaztuak” elkarteak plaka oroigarri bat jarri du.

2.2.4. Saturraraneko kartzela:

Amaitzeko, aztertuko dugun azkenengo espetxea Saturraranekoa izango da, 1938tik 1944ra bitartean funtzionamenduan egon zena. Hasiera batean, Zornotzako kartzela bezala, gune egokitu bezala izendatu zuten, baina geroago prisio zentrala bilakatuko zen (Jiménez, E., León A., et al., 2012). Datuen arabera, kalkulatu da Saturraranek 4.000 pertsona hartu zituela bere bilakaera guztian zehar (Lizaso, G., 2016).

Kartzela Mutrikuko udalerrian kokatzen zen, baina ez herrian bertan, Ondarroarekin (Bizkaia) muga egiten den lekuan dagoen Saturraran hondartzan, ordea. Apaiztegi zahar bat izango zen, ordena mertzedarioko 25 moja eta 50 zaintzaile izango zituen. Guneari dagokionez, esan behar dugu XIX. mende amaieratik oso leku turistikoa izan dela, eraikinak egiten hasi ziren urtetik hain zuzen ere. Gainera, 1921. urtean seminaristen bainuetxe bilakatu zen, 1936. urtean gerra hasi zen arte. Hau gertatzean, Eusko Gudarostearen koartel bezala erabili zuten, urriak 4an errebeldeek Mutriku hartu zuten arte. Honela, 1937ko abenduaren 29ko ordena baten bidez eraikin multzoa emakumeen kartzela bilakatu zen, 1938. urteko urtarrilaren 3an ateak irekiz (Jiménez, E., León A., et al., 2012).

Kartzelaratutako presoiei dagokienez, batez ere preso politikoak zirela esan behar dugu, eduki moraleko akusazioak izaten zituztenak, adibidez matxinadekin lotutakoak. Lanean zehar aipatzen ari naizen bezala, espetxez lekualdatzea oso ohiko jarduera bat zen, eta horregatik, orokorrean Saturraranen zeuden presoentzat ez zen beraien lehen espetxea izaten, ez ziren behin-behinekoak. Hauei erreparatuz, Durango eta Zornotzan bezala, ia preso gehienak kanpokoak izango ziren, ez Oruen bezala. Badakigu, hauetako gehienak Espainia iparraldeko gunetakoak izaten zirela, eta bazeudela 45 euskaldun ere (Lizaso, G., 2016).

Adinari so eginez, gehienak 21-25 urte bitartekoak izango ziren, erdiak ama izango zirelarik. Nolanahi ere, ez dago haurren inguruko kopuru zehatzik, baina badakigu beherakoa, sarna, desnutrizioa, zorriak... pairatzen zituztela, hil ere egiten zirelarik kasu batzuetan (Lizaso, G., 2016).

Guzti hauen artean, landa zein hiri eremuko emakumeak aurki ditzakegu, baina deigarria da gehienak etxeko andreak zirela, emakumeak garaian etxearekiko zuen lotura estua berriz ere argi utziz (Lizaso, G., 2016).

Kartzelari dagokionez, eraikin multzo bat dela esan behar dugu, hauetariko bakoitza elkarrengatik urruti egongo zelarik, gainera, ezin ziren batetik bestera pasatu eta guzti honek komunikazioa zailtzen zuen. Eraikin bakoitzean presoak beren ezaugarriengatik banatuko zituzten, seigarren eranskinean ikusten den bezala (Jiménez, E., León A., et al., 2012).

Bertako bizimoduari arreta jarritz, ikusi da hemen ere Durango eta Zornotzan bezala, presoak trenean heltzen zirela, egoera penagarrietan. Kasu honetan, trena Debararte joango zen, Mutrikuren mugakide den Gipuzkoako herrira, eta bertatik Saturraranera kotxeetan mugituko zituzten (Jiménez, E., León A., et al., 2012).

Mojetan zentratuz, pabiloi bakoitzean launaka banatuko ziren, eta aipagarri da burua Sor Arantzazu Velez Mendizabal izango zela, presoen artean oso fama txarra zuena, bere krudelkeriak zirela eta. Hau erakusteko, aipa dezagun presoek “Pantera Blanca” eta “Sor Veneno” bezalako izenak jarri zizkiotela. Zer esanik ez, kartzela honetan, besteetan bezala, sekulako krudeltasunez tratatzen zituzten presoak, edozer gauzogatik zigortuz

eta emakumeak makurtuz. Honez gain, oso deigarria da lapurretak ere agertzen direla, mojen eskutik emakumeei egindakoak. Honen adibide dira janaria kendu eta alboko herria den Ondarroako portuko gizonekin arraina negoziatzera joatea. Elikagaiekin loturik, mojek haurrik erakargarrienak hartzen zituzten baserrietara eskean joateko, baina lortutakoa ez zien hauei ezta amei emango, beraientzat gordetzen zuten, sekulako janak izaten zituztelarik, presoek arroza lokatzarekin jaten zuten bitartean (Jiménez, E., León A., et al., 2012).

Gauzak horrela, presoek egunerokotasuna oso gogorra izaten zen. Beraien errutinan murgilduz, badakigu lurlean egiten zutela lo, zaku batean, eta esnatu bezain pronto, hau jaso eta Angelus-a errezatzen zuten, hau da, erlijio katolikoa praktikatzera behartuta zeuden. Gainera, Saturraraneko kartzelako bereizgarri bat, besteetan agertu ez dena, dutxen falta da, ez dira inoiz dutxak egon, eta honen aurrean, Angelus-a errezatu ostean toaila hartu eta Mijoa errekan garbitzen ziren. Jarraian, orraztu, zenbaketa egin eta gosaldutik egin behar zuten. Eguneko beste orduak tailerlean lanean edota elkarrekin hitz egiten pasatzen zituzten, hala nola “Cara al sol” eta horrelako abestiak ere kantatzera behartuz. Oso egoera krudela zen hura, eta guztiaren ondorioz, gaixotasunak eta hiletak egunerokotasunaren barnean agertzen ziren. Janari faltak, tratatu txar fisiko eta mentalak, hotzak, hezetan... hainbat arazo zekartzen, eta fusilamendu eta suizidioek ez zuten laguntzen. Gainera, zigor oso ohiko bat ziega bereziki hotz eta hezeetan sartzea izaten zen. Gaixotasun ohikoenak tuberkulosia, bronkitisa, paralisiak, izurriteak, minbiziak... izaten ziren, gaixotasun mentalak ahaztu ezin ditugularik, aurreko ataletan sakondu ez direnak, izan ere, bibliografietan gutxiago lantzen direla ondorioztatu dut, gaixotasun fisikoei askoz garrantzia gehiago ematen zailarik. Aipatzekoa da, ezkutatu egiten direla gaixotasun mentalak, edo ez direla garrantzitsutzat hartzen, gainera, erotzat hartzen zintuzten. Orokorrean, Mutrikuko erregistro zibilean 116 hildako emakume eta 56 hildako haur erregistratzen dira (Jiménez, E., León A., et al., 2012).



9 eta 10 irudiak: Ezkerrean, Saturrarango 1956-1957. urteetako aire argazkia, eta eskuinean 2021ekoa. Iturria: Geoeuskadi bisorea.

Ikusten den bezala, gaur egun ez dira eraikinak mantenduko, eta hauek zeuden lekuan aparkaleku bat eta hainbat landare agertzen dira. Ordea, nahiz eta ez mantendu, memoriari dagokionez, Ahaztuak elkarteak plaka bat jarri zuen, eta eraildako emakume eta umeen zerrenda agertzen den oroitarria ere badago. Ezin da aipatu gabe utzi kartzela honen inguruan egindako “Izarren Argia” pelikula, memoria mantentzen laguntzeko tresna egokia izan dena.

3. IKERKETAREN ONDORIOAK ETA MEMORIA GAZTEEN ARTEAN

Ikerketa burutzen aritu naizen tarte guzti honetan emakumeen inguruan dagoen informazio faltaz jabetu naiz, eta hasieran aipatutako hutsunea baieztatu ahal izan dut. Hutsune hau, noski, genero zapalkuntzaren ondorio izango da, ulertuz hau ez dela soilik garai hartan betetzen zituzten paperekin edota bizitzen zituzten egoerekin ikusten, gaur egun egiten den memoria historikoan ere argi geratzen da. Honen harira, lanean zehar ikusi ditugun politikarien bulegoak, kartzela ezberdinak... birgogoratu nahi ditut, izan ere, hauek erakusgarri onak izan dira memoria historikoa ikertzerako garaian.

Guzti honi loturik, interesgarria irudituz zait, unibertsitateko ikasle naizen aldetik, ni bezalako jende gazteak gaiaren inguruan duen memoria ikertzea, hau erakusgarri gerta daitekeelarik gai hau itzalpean mantentzen den edo ez jakiteko. Beraz, zazpigarren

eranskinean, egindako inkestaren erantzunak plazaratu ditut, zeina 87 pertsonak erantzun duten. Jarraian, atera ditudan ondorioak aipatuko ditut. Lehenik eta behin, esan beharra dago, Gerra Zibileko arkeologian orokorrean bezala, memoria gehien egiten den alorra errepresioa izango dela hemen ere. Inkestaren arabera, erantzun duten pertsonen %55ak ez daki emakumeek elkarte politiko propioak izan zituztela. Honez gain, inkesta momentu baten alde batera utziz, esan behar dut lanean zehar ere argi ikusten dela oroitarriak soilik hiru kartzelatan daudela, baina bulego politiko edo egoitza batean ere ez. Inkestara berriro itzuliz, elkarte politiko hauei dagokienez, nahiz eta gehiengoak bat ere ez erantzun, famatuena “Sección Femenina” izango dela, %41,3ak ezagutzen duelarik. Hala ere, ez da erantzun duten pertsonen kopuruaren erdira iristen.

Esan dugunez, errepresio eremuak, kasu honetan kartzelak, memoria gehiago egin diren guneak dira, baina ez askoz gehiago, hemen ere hutsunea sumatzen da. %56,2k, hau da, erdia baino pixka bat gehiagok ezagutzen dute azaldutako kartzelarenbat, besteek bat bera ere ezagutuko ez duten aldetik. Hauen artean, famatuena Saturraranekoa izango da, aurrez aipatu dugun bezala, bi oiroitarri izateaz gain pelikula bat ere egin delako, argi utziz honek memorian lagun dezakeela.

Honi loturik, emakumeen memoria historikoaz arduratzen diren elkarteak jende gaztearengana gutxi hurbildu direla ere ondorioztatu dut, izan ere, erantzun dutenen %67,5ek ez du inoiz emakumeei eskeinitako esposizio edota oroitaldirik ikusi, eta soilik %3,8k ezagutzen du honetaz arduratzen den elkarte espezifikorik.

Memoria falta honek, batik bat, emakumeen garaiko egoeraren ezjakintasuna ekarri du gazteen artean. Hau inkestan oso argi ikusten da, izan ere, gazteen erdiek ez dakite emakumea tailerretan aritu zela lanean, eta %20ak soilik daki frentean paper bat burutu zutela, nahiz eta epe laburrez izan. Oso azpimarragarria da, hutsune honen aurrean gazteek kontzientzia bat garatu dutela, izan ere, %92,5a ados dago memoria historikoan dagoen hutsuneaz, eta %97,5ek argi du emakumearen papera gizonena baino askoz gutxiago ikertu dela.

Ikerketa guzti honek, oso argi uzten du arkeologia genero ikuspuntu batetik lantzeko dagoen beharra, emakumearengan eman den bazterketa ukaezina den aldetik. Gure lana

da berdintasunean oinarritutako arkeologia bat burutzea, berdintasunean oinarritutako gizarte bat eratzeko ezinbestekoa.

4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- BADIOLA, A. (2019): *Individuas peligrosas. La prisión central de Mujeres de Amorebieta (1939-1947)*. Txertoa, Donostia.
- CALVO, M., FERNÁNDEZ, J. (2016): ““Orue” la prisión habilitada para mujeres. De la prisión al olvido”. *Bidebarrieta*, 26. 75-87. or.
- CALVO, M. (2020): “Represión penal de las mujeres de Bizkaia: Prisión Provincial de Bilbao y Chalet Orue (1937-1942)”. In P. Olivera eta M.C. Cubero (Ed.), *De los controles disciplinarios a los controles securitarios*, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha: 555-571. or.
- CAPEL, R.M. (2007): “De protagonistas a represaliadas: la experiencia de las mujeres republicanas”. *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 11-12. 35-46. or. Madril.
- EGIDO, A. (2011): “Mujeres y rojas: La condición femenina como fundamento del sistema represor”. *Studia Histórica. Historia Contermporánea*, 29. 19-34. or.
- ELORZA, A. (1978): “Emakume: La mujer en el nacionalismo vasco”. *Tiempo de historia*, 38. 4-17. or.
- GONZÁLEZ, I. (2014): “La nación en llamas: Representaciones femeninas del nacionalismo vasco durante la Guerra Civil Española”. In T. Fernández-Ulloa (Ed.), *Changes, Conflicts and Ideologies in Contemporary Hispanic Culture*, University of Nebraska-Lincoln: 165-188 or.
- GOROSARRI, M. (2011): “Durangoko emakumeen kartzela”. *Astola. Ikerketa eta historia. Gerediaga elkarte*, 5, 26-39. or.
- GRAHAM, H. (2003): “Mujeres y cambio social en España de los años treinta”. *Historia del presente*, 21. 9-24. or.
- JIMÉNEZ, E., LEÓN, A., et al. (2012): *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera posguerra*. *Hacia la recuperación de su memoria*, Emakunde, Kriminologiaren Euskal Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea.

- JUAN DE LOS TOYOS FUNDAZIOA (2019): *Cárceles y prisiones de mujeres en la Guerra Civil. Los casos de Amorebieta y Durango* (Txostena), Eusko Jaurlaritzia.
- LIZASO, G. (2016): *Birrindutakoa berpizten. Ahaztutako arkitekturak eta emakumeak: Saturrarango emakumezkoen espetxearen adibidea* (Master Amaierako Lana), Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LÓPEZ DE MATURANA, V., RUBIO, C. (2018): “Nuevas perspectivas sobre el estudio de la Guerra Civil en el País Vasco”. *Sancho el Sabio, Extra 1*, 7-12. or.
- MARÍN, C., AYÁN, X., et al. (2013): “El blog “Arqueología de la Guerra Civil”: un proyecto entre la ética y la estética”. In J. Almansa (Ed.), *Arqueología pública en España*, JAS Arqueología Editorial, Madril: 419-437. or.
- MONTÓN, S. (2018): “Sobre sexo, género y sexualidad en arqueología”. *Revista ArkeoGazte Aldizkaria*, 8. 27-33. or.
- MOVIÉNDOTE ELKARTEA (2020): *Emakume Antifaxisten Elkarteko euskal batzordea. Beste gudu-frontea* (Txostena), Eusko Jaurlaritzia.
- PÉREZ, A. (1996): “La formación de la mujer Española en la Sección Femenina de F.E.T y de las J.O.N.S: La enciclopedia para cumplidoras del servicio social”. *Indagación: revista de historia y arte*, 2. 163-180 or.

5. WEB ERREKURTSOAK

- BIBLIOTECA NACIONAL DE ESPAÑA: “Y” *Madrid*, 2, 1938ko martxoa, 56-57. or:
<http://hemerotecadigital.bne.es/issue.vm?id=0027339054&search=&lang=es>
(2020-04-20an kontsultatua).
- BIBLIOTECA NACIONAL DE ESPAÑA “Y” *Madrid*, 3, 1938ko apirila, 9. or:
<http://hemerotecadigital.bne.es/issue.vm?id=0027339208&search=&lang=es>
(2020-04-20an kontsultatua).
- CENTRO DOCUMENTAL DE MEMORIA HISTÓRICA: *Mujeres Bilbao*, 6, 1937ko martxoa:
<https://www.museoreinasofia.es/coleccion/proyectos-investigacion/mujeres-guerra-civil-espanola/asociacionismo-mujeres-libres-ama>
(2020-04-20an kontsultatua).

- GEOEUSKADI BISOREA: <https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/>
(2020-05-09an kontsultatua).

6. ERANSKINAK

1.ERANSKINA: Bilboko *Mujeres* aldizkariko karguak.

Kargua	Presidentea	Idazkaria
Izena	Florentina Tasende	Faustina Balaño
Ideologia	ANV	Komunista

2.ERANSKINA: Emakume Abertzale Batza-ren gerra hasierako elkarte kopurua.

	Elkartek	Talde solteak	Formazioan edo eraikitzen	Afiliatuak
Bizkaia	116	6	x	15.000
Gipuzkoa	66	x	8	10.000
Araba	11	x	12	1.500
Nafarroa	12	40	30	2.000
GUZTIRA	205	46	50	28.500

3.ERANSKINA: Emakume Abertzale Batza-ren lehen zuzendaritza junta.

Kargua	Presidentea	Bizepresidentea	Idazkaria
Izena	Karme de Errazti	Pilar de Eguiraun	Paulina Ramos

4.ERANSKINA: Kartzelen kronologia eta kokapena.

Kartzela	ORUE	DURANGO
Kronologia	1937-1942	1939-1940

Kartzela	ORUE	DURANGO
Kokapena	Bilbo (Bizkaia)	Durango (Bizkaia)

Kartzela	ZORNOTZA	SATURRARAN
Kokapena	1939-1947	1938-1944
Kronologia	Zornotza (Bizkaia)	Mutriku (Gipuzkoa)

5.ERANSKINA: Orue-ko presoen profilak.

Presoen jatorria	Bizkaia (%75)	Madril (%3,5)	Malaga (%2,3)	Badajoz (%1,9)	Besteak (%17,4)
Presoen adina	21-30 (%30)	31-45 (%30)	16-20/45-61 (%9)	80tik gora (%3)	
Presoen egoera zibila	Ezkontuta (%46)	Ez kongabea (%40)	Alarguna (%14)		


6.ERANSKINA: Saturraraneke presoen banaketa.

Presoak	Amak umeekin	Erizainak	Zaharrak	Gainontzekoak
Eraikina	Fonda Astigarraga zaharra	Villa Capricho	Pebelloi batean	Grand Hotel Saturrararen-en barrena

7.ERANSKINA: Inkesta-ren emaitzak.


Gerra Zibilean eta frankismoan emakumearen papera gizonena beste ikertuta dagoela iruditzen ahal zaizu?

80 respuestas




Zure ustez, eskoletan zenbat denbora eskeini izan diote emakumearen historia irakasteari?

80 respuestas



Memoria historikoan emakumea baztertua geratu dela uste ahal duzu?


80 respuestas



Emakumeen kartzela hauetatik zeintzuk ezagutzen dituzu?


 Copiar

80 respuestas



Ba ahal zenekien Gerra Zibila eta lehen frankismoaren kontestuan emakumeek elkarre politiko propioak zituztela?


80 respuestas



Emakumeen elkarte politiko hauetatik zeintzuk ezagutzen dituzu?

 Copiar


80 respuestas



Zein uste duzu zirela garaiko emakumeak bete zituen paperak?

 Copiar

80 respuestas



Ikusi al duzu noizbait garai honetako emakumeei eskeinitako esposizo/oroitaldiren bat?

80 respuestas

